

Dionisia Garate Otxoa
Espartza-Zaraitzu, Nafarroa (1904)

Aurkibidea

Biografia

Espartzan jaioa. Aita ere bertakoa zuen; ama, berriz, Otsagabikoa. Zubialde etxean bizi izan zen.

Zintak

ESZ-002

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Bujanda, Mikel
- **Data:**
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ESZ-003

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1979-01-01

- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ESZ-004

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1986-01-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

ESZ-006

- **Proiektua:** Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1985-01-01
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Aranzadi elkartea

Pasarteak

1. Alaba mojaren inguruko kontuak

- **Erref:** ESZ-003/001
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Alaba moja hiru urterako Txilera joan dela kontatzen du. Aurretik Madrilén egon zen.</p>

Transkripzioa

- Eta horren alaba, gaztea, monja dagoena, joan al zen?
- Fan zen, fan zen.
- Madrilera?
- ¡En Chile dut! en Chile dago orai... eman dada buen disgusto.
- Urrin, e? urrinera...
- Oh, ¡ya lo creo! urruun!... non da ura?
- Urrun; eta zenbat denboratako...?
- Amar(s)... amarr oron? igare zuen abionian, ellegatzeko... a Chile; asike ongi ellegatu zela.
- Eta zenbat denbora behar du egon han?
- Irur urte... bida edo irur urte, erran zuen.
- Bi edo hiru urte ikusi gabe, e?
- Ikusi bage.
- Gogor, e? ama batendako...
- Bai-bai-bai... keben ademas egon da Madrilén... jo! zegon nai zuen gisa, eta erran nakon bai: “Yago nai dun gisa eta... eta ez kontent, nai

urrunago”, pues...

- Tira, izpiritu handia berak, e? misioneroa edo...

- Misionera da, misionera.

- Zein kongregazionetakoa?

- Marianista; pues bai, pues fan zen, laur fan zre, eta... Madre General? fan zen ermatra, te ikusi nuen Madre General ere... kor, Iruñean, egon nintzalarik orai azkenik? bisitatze? Xin tzen enegana ere ekustra? ta erran tzadan: “Pues nik fan bear xut akonpañatzra; eta igare bar xut kan? ilabete bat, eta itzultzen nizalarik kandi? orduan eskribitrien dauxut eta xardokien dauxut Madrilerik”. Orrek du destinoa Madril(l)e, Madre General, sí, konke ala. Ernegun rezibitu nuen karta bat, tremenda!... a(t)zfa guzien artian! Gero? egon zren laurak, kan bisitatzen Iruñan, laur fan drenak xunto, ta erran zadaen:

“Bueno, bueno... eskribitien dugu laurek”, eta bai-bai, laurek firmatzen die karta. Ongi llogatu drela baia, gauzak men daude annitz... kemen daudela kario? kan doblatrik! aniz kario daudela gauzak... eztokiela xan baizik ere egunian... gauza, biar den gisa, bein; irabaz guti, eta... izia neskai. Fanen dela kontatuz, baëa bah! aski, aski, aski gogor da. Bueno-bueno, hala! eztugu denb(o)rarik galdu in biar.

2. Oihala, zango eta oinen babesgarria

- **Erref:** ESZ-003/002

- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:02:34. **Bukatu:** 00:05:00

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Unai ibiltzen zirenean oihal batzuk erabiltzen zituzten zango eta oinak babesteko. Sokekin lotzen zituzten.</p>

Transkripzioa

- Bai, oial egiten zen denbraz... oiala, zeren ermaten ginuen... ebiltzen gintzalarik... unai? ermaten ginuen... kalzetin? e-, kalzetinak ez, uiii... orai ez, ez memoriala xiten. Ez-ez, ez, eniz oritzen... oiala! ooño, oialez ermaten ginuen...

- Calcetines o medias o...

- Ez, ez, ez! kori da aparte; ermaten ginuen...

- Pealetas edo?

- Ere ez; pieza batzur... andi-andia(k).

- Zaraguellak edo?

- Ere ez.

- Galtzak edo?

- Eez, ez-ez-ez-ez.

- Kalzonak edo? kotak?... ez, kota es ‘falda’, no?

- Kottara es ‘la falda’; oi... oi-oi ez, ez niz oroitzen, ermaten ginuenik ee.

Abarkaria, ere bai, kuerda luze batzur, ematen... buelta, zoinek... zoinek pintxago, ermaten ginuen... ya-ya; zer gauza!

- ‘Zoinek pintxago’ zer da? ¿cada cual más elegante, más bonito?

- Zoinek pintxago, zoinek oiala? mira, oialez, oialez. Ermaten ginuen pantorrillan? oial bana; metro batez egitrenzen, bi... bi pantorrillendako, e? eta gero kura... lotzen zen... kuerda luze batzuz, kori da, orra, oiala... oiala. Orai! orai ya ellegatu tä! orra, azkenian, e? azkenian xiten da memoriala: oiala.

3. Nondik nora ibilia

- **Erref:** ESZ-004/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Nondik nora ibilia den. Alacanten egon izan da han bizi den semearekin. Donostian eta Madrilen ere ibilia da, alaba moja izan zuelako bertan.</p>

Transkripzioa

- Noraino fan izan zira?
- Nioxu pentsatzen: egon nitxu Madrilen, San Sebastianen?... eta Alicanten. Xaz? denbora kontan? nengon Alicanten... Alicante; kan badut seme bat, kasatrik... eta xaz egon nintzan kan. Zortzi egun igare nitxun kan, en Alicante.
- Eta, ongi?
- Anitz ongi! ojala aurten ere fan banitza! akaso katarro kori arien tzen, len kan, ezik kemen...
- Eta San Sebastianen ere bai?
- San Sebastianen? izan nuen... alaba bat, kan, monja, eta egon nintzan kan... irur aldiz! irur biaje egin nituen nik San Sebastianera.
- Zein ordenetako?
- Marianista, marianista; ta orai daukit Madrillen, alaba kori. Pues... Madrilen egon nintzan... egon nintzaxun? seme batekin; egon zen seme kori... en el Canadá, Kanada, fan zen Kanada, eta egon nintzan, kan? akonpañatzen ta, denbra berian? alabari bisita egiten. Fan zelarik... al Canadá? pues egon nintzan kan, semearekin? ta alabareki... (e)on zelarik billetearen elkitzra. Ta Iruñan? oh!... Iruñan... Iruñan anitz aldiz!
- Politena zein da?
- Emen, enetako, obekiena-obekiena?... San Sebastian.
- Bai? politena?
- Bai, kan baitago itsaso aniz majo! ta ni egon nintzan kolejio kartarik? ikusten nuen... olak, nola xiten zren (...); San Sebastian eo... enetako majo-majoena. Alicante eee... majo da eta ezta, kan ere badago guzietarik; kan ere, klaro! itsasoa baita, inguru, itsasoa da majo, baia... kapitalia? enetako itsusi. Madril? en Madril? enintzan egon baizik ere... alabaren kolejioan solo; ni kandik enintzan iyora ere elki, kandik estazioala? ta estaziotik... ura zengon kolejioala, ni... Madrilen? enintzan eblili batre, iyora're! enintzan elki kandik... kolejioan geldik. Total, enuen igare baizik ere egun bat!... konke egun batez, zertako bear nuen elki ni(k) Madrilen ikustra?

4. Espartza: Eguberrietako ospakizunak abantxu desagertuak

- **Erref:** ESZ-006/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Bera gaztea zenean, eskean irteten ziren Eguberrietan. Ez du euskarazko gabon-kantarik oroitzen. Jada ez duela inorekin euskaraz hitz egiten dio.</p>

Transkripzioa

- Geo nereki deustako´re. Ez dao haurrik!
- Ez.
- Ez mutikorik, eta ez neskatorik, eta deus´e, deus´e!
- Baina hori gazte zelarik? Orduan bai?
- A, orduan bazen, bai.
- Eta zer egiten zen?
- A! Zer egiten zen?
- Bai. Nun eta nola bildu, eta...?
- Etse, etsez etse, etse batetarik berzeala limosna bila, eta gero xuntatzen zen etse batiala eta orduan kan xan guzik.
- Ta kantatzen zen zerbait? Villancicoren bat edo?
- Bai.
- Bai, e?
- Kantatzen zien, bai.
- Bai. Eta nola, nola zen, villancico hura?
- A! Atzerik dago, daude guziak.
- Ea, ea, pentsa beza, pentsa beza, pixkat. A ver xiten denez.
- Ez, ez, ez.
- Ba pollita izanen zen!
- A, atzerik daude guziak, euskara guziak. Ez dut xardokitzen inorekin ere!
- Ez, e?
- Zertako? Nire euskara bukatu da.
- Ba badira, badra, herri gontan oraño´re zera badakiten, e, badakien ba, batzuk?
- Uska, uskaldunak hil dra biak, bata bestearen atzea.
- Bai?
- Así que, ez dago ya uskaldunik eben.
- Semeak pixka bat badaki, e? Semeak pixka bat badaki.
- E!
- E? Nerekin egin du pixka bat! Eta hor baziren kartetan, e, jostaten, edo jostatzen, edo... beste, bertze hiru gizon eta, kaiek eta aditu dielarik eta euskaraz ari ginela, ba hasi dra xardokitzen, pixka bat, euskaraz eta bai, bai, bai. Batek, e, aski ongi egiten zuen. Batek.
- Korrek, [...].
- Bai, apal zagon gizon batek. Orduan ez zira, ez zira oroitzen zer kantatzen zen?
- Ez, ez, ez! Ez niz molestaien, errateko. A! Zertako? Ez naiz oroitzen batere!
- Eta errege bezperan zerbait egiten zen?
- Ez.
- Errege bezperan ez? Cencerrada, o...?
- Hoiiek ya, atzerik daude guziak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com